

# 2017 KULTURA EGITARRAUA

## Bizkaiko Foru Liburutegia



Infokultura Posta Zerrenda Harremanak Bidali zure albisteak >> Sindikatu Bilatu:

**HASIERA** **ALBISTEAK** **BISUALAK** **EMAKUME ARTISTAK** **ARGAZKIGELA** **KALESOUND** **LEHIAKETAK** **NONTZE TV**

arteak bertsotan musika eszena ikus-entzun literatura bestelakoak ezlekubat

## “Fikzioa, kritika kulturala eta feminismoa”



Datorren larunbatean, urriak 7, urte honetako bigarren *Radio Show consonni* egingo dute Azkuna Zentroan, 12:00etatik 14:00etara, *Fikzioa, kritika kulturala eta feminismoa* titulupean. Ekimena irratsaio bat jendaurrean eta zuzenean izango da, eta emankizuna ere *online*. Leire Palacios kazetaria arduratuko da saioa gidatzeaz, eta Alberto de la Hoz, berriz, arlo teknikoaz.

*Fikzioa, kritika kulturala eta feminismoa* egitasmoan, “ikuspegi desberdinetatik helduko diegu kritika kulturalari eta feminismoari, Lucy R. Lippard idazle ezagun, kulturako kritikari eta ekintzaile feministaren *Yo veo / Tú significas* (consonni, 2016) eleberraren bidez”. Bera ere saioan azalduko da, bidez egindako elkarrizketa batean.

Aukera ederra izango da liburuak kapituluak berrinterpretatuz saio honetarako berriaz egindako musika-, eszena-, eta soinu-pieza berriekin gozatzeko.

Lagun hauek izango dira parte hartzen: Mursego musikan, Mabi Revuelta, Elena Aitzkoa eta Macarena Recuerda Shepherd artistak, Idurre Azkue ballet-dantzari eta koreografoa, Jaime Conde Salazar performer eta dantza-kritikaria, Peio Aguirre arte-kritikaria, DJ Oleaktiff, Silvia Nanclares eta Kattalin Miner idazleak, Oihane Ruiz arkitekta, David Hornback argazkilaria, Paloma Checa-Gismero arte-kritikari eta ikertzailea (audio bidez) eta Agnès Pe musikologoa eta ikertzailea.

VK Komunikazioa-k bidalita // 2017-10-05 · 11:06:26



Bidali zure albisteak >>



**“Sexu, klase eta indarkeriaren arteko harremanak”, Azkuna zentroan**



**“Emakumeak eta kitto” erakusketa, ARTgia aretoan**



**Fantasiaren bariazioak**

---

[Nortzuk gara](#) · [Babesleak](#) · [Erabiltzaileak](#) · [Lizentziak](#) · [Web Mapa](#)

